# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**469**

12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituena.

Haurrek bizitzako lehenengo urteetan jasotzen duten hezkuntza alderdi erabakigarria da, gero, pertsona gisa izango duten garapen osorako. Familiari dagokio, lehen-lehenik, hezteko erantzukizuna, sozializatzeko eragile nagusi den aldetik; hain zuzen, familiaren eraginaren bitartez, haurren nortasuna egituratu behar duten oinarrizko balioak sendotzen dira bertan, gaitasun intelektualak eta afektiboak garatzen, eta helduen kultura transmititzen. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hezkuntza-eginkizun horretan, familiekin lankidetzan aritzea dagokio eta, horretarako, haurren garapenerako neurri egokienak bultzatu behar ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adin-tarte horretan dauden haurrei mota eta baldintza askotako ikastetxeetan ematen zaie arreta: udalaren titulartasunekoak diren haur-eskoletan, titulartasun pribatuko haur-eskoletan, Haurreskolak Partzuergokoetan, eta, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, bi urteko haurrak eskolatzeko geletan. Egoera horrek zero urtetik sei urtera bitarteko haurren hezkuntza-arreta arautzea eskatzen du, adin-tarte horretako haurrei ematen zaien hezkuntza-arretaren kalitatea eta familiei ematen zaien zerbitzua berma daitezen. Horrek, familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko aukera erraztea izango du xede.

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeko (1993ko otsailaren 19koa) 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publikoek ziurtatuko dute, euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen bitartez, hiru urtetik gorako haur guztien eskolatzea doakoa izango dela unibertsitateaz kanpoko izaera orokorreko irakaskuntzaren maila orotan. Eta 9.2 artikuluan dio hezkuntza-administrazioaren ardura izango dela, gainerako administrazioekin eta gizarte-eragilerekin elkarlanean, zero urtetik gorako haurrak eskolatzen joatea hala eskatzen dutenen artean, bai eta hezkuntza-alorreko sektore guztiei haurrak eskolatzeko aukeraren berri ematea ere. Edonola ere, ezarpen-prozesuaren barruan, lehentasuna emango zaie maila sozioekonomiko apalena duten guneei eta, oro har, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei edo hizkuntza-premia bereziak dituztenei.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, auto-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**469**

DECRETO 12/2009, de 20 de enero, por el que se establece el currículo de la Educación Infantil y se implantan estas enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La educación que reciben los niños y niñas en sus primeros años de vida es un factor decisivo para su posterior desarrollo integral como personas. A la familia corresponde en primer lugar la responsabilidad educativa como agente primario de socialización ya que es a través de su influencia como se consolidan los valores básicos que han de estructurar su personalidad, se desarrollan las capacidades intelectuales y afectivas de los niños y niñas y se transmite la cultura de los mayores. Al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, corresponde colaborar con las familias en esta tarea educativa impulsando las medidas más adecuadas para su desarrollo.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco los niños y niñas de estas edades se encuentran atendidos en centros de muy variada tipología y condiciones: escuelas infantiles de titularidad municipal, escuelas infantiles de titularidad privada, Consorcio haurreskolak, aulas para la escolarización de niños y niñas de dos años en centros públicos y en centros privados. Esta situación requiere la regulación de la atención educativa desde los cero hasta los seis años, de modo que se garantice tanto la calidad de la atención educativa de los niños y niñas de estas edades como el servicio que se presta a las familias con la finalidad de favorecer la conciliación de la vida familiar y la vida laboral.

El artículo 9.1 de la ley de Escuela Pública Vasca 1/1993, de 19 de febrero, establece que «los poderes públicos garantizarán, a través de los centros que integran la escuela pública vasca, la escolarización gratuita, a partir de los tres años de edad, en todos los niveles de enseñanza de régimen general no universitario» y que «la Administración educativa, en colaboración con las distintas Administraciones y agentes sociales, realizará la implantación progresiva de la escolarización a partir de los cero años a todos aquellos que lo demanden, informando a los sectores educativos de las posibilidades de escolarización infantil. En todo caso, en el proceso de implantación se dará prioridad a las zonas de menor nivel socioeconómico y en general, a los alumnos con necesidades educativas especiales o necesidades de carácter lingüístico» (art.9.2).

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, dispone que las Comunidades Autónomas es-

nomia-erkidegoek Lege horretan arautuko irakaspenen curriculuma ezarriko dute. Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzaren inguruko berezko eskumena, irakaskuntzaren hedapen osoan, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate orotan. Eskumen horretaz baliaturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako bi zikloetako curriculuma ezartzea. Horretarako, kontuan izan da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaspenak zehazten dituen 1630/2006 Errege Dekretuan (2006ko abenduaren 29koa) xedatutakoa eta, bereziki, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretua (2007ko urriaren 16koa, azaroaren 13ko EHAAn argitaratua). Curriculumaren Dekretuan jaso dira Dekretu honetan curriculum-proposamena egiteko erreferentzia izan diren hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizkoak.

Halaber, aintzat hartu da zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen dituen 297/2002 Dekretua (2002ko abenduaren 17koa, abenduaren 31ko EHAAn argitaratua) aplikatzeak EAEn izan duen eragina. Oraindik indarrean dago 215/2004 Dekretua, 2004ko azaroaren 16koa, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (azaroaren 19ko EHAAn argitaratua). Azkenik, Dekretu honen xede diren 2008-2009 ikasturterako irakaspenak autonomia-erkidego honetako ikastetxeetan ezartzeari ekingo zaio.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Helburua.

Dekretu honen helburua EAEko Haur Hezkuntzako berezko curriculuma ezartzea da. Dena den, bete egin beharko da Haur Hezkuntzako bigarren zikloari dagozkion gutxieneko irakaspenak ezartzen dituen oinarrizko araudian xedatutakoa.

Halaber, Dekretu honek 2008-2009 ikasturtetik aurrera irakaspen horiek ezartzea ere badu xede.

***2. artikulua.***– Aplikazio-eremua.

Autonomia Estatutuan jasotako hezkuntzako eskumenen arabera, Dekretu hau aplikagarri izango da Haur Hezkuntzako bi zikloak, zikloetako bat edo lehenengo zikloko zati bat ematen duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan.

tablecerán el currículo de las enseñanzas reguladas en la misma. El Estatuto de Autonomía del País Vasco atribuye la competencia propia sobre la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades a la Comunidad Autónoma del País Vasco. En uso de dicha competencia, corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación establecer el currículo de los dos Ciclos de Educación Infantil en la Comunidad Autónoma del País Vasco, para lo que se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Real Decreto 1630/2006, de 29 de diciembre, por el que se determinan las enseñanzas mínimas del segundo ciclo de Educación Infantil y especialmente el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se implanta el currículo de la Educación Básica (BOPV del 13 de noviembre), que incluye las competencias generales y básicas que en el presente Decreto han sido la referencia para la elaboración de la propuesta curricular.

También se ha tenido en cuenta la incidencia en la CAPV de la aplicación del Decreto 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulaban las Escuelas Infantiles para niñas y niños de cero a tres años (BOPV del 31 de diciembre). Sigue estando vigente el Decreto 215/2004, de 16 de noviembre, por el que se establecen los requisitos mínimos de las Escuelas Infantiles para niñas y niños de 0 a 3 años (BOPV de 19 de noviembre). Por último, se procede a implantar las enseñanzas objeto de este Decreto para el curso 2008-09 en centros docentes de esta Comunidad Autónoma.

En su virtud, emitidos los informes preceptivos correspondientes, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el 20 de enero de 2009,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto establecer el currículo propio de la Educación Infantil de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin perjuicio de lo previsto en la normativa básica por la que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes al segundo ciclo de dicho nivel educativo.

Asimismo, es objeto de este Decreto la implantación de estas enseñanzas a partir del curso 2008-2009.

***Artículo 2.***– Ámbito de aplicación.

En función de las competencias de educación asumidas en el Estatuto de Autonomía, el presente Decreto será de aplicación en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco que impartan los dos ciclos de Educación Infantil, uno de ellos o una parte del primer ciclo.

***3. artikulua.***– Antolamendua.

Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta sei ikasturteko iraupena du. Sei ikasturte horiek bi ziklotan daude banatuta: lehen zikloa, zero eta hiru urte bitartekoa; eta, bigarrena, hiru eta sei urte bitartekoa.

***4. artikulua.***– Xedeak.

1.– Haur Hezkuntzaren helburua haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea da.

2.– Bi zikloetan honako hauek landuko dira arian-arian: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputzaren kontrol-ohiturak, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenak, bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak, eta ikasleen ingurunearen ezaugarri fisikoen eta sozialen aurkikuntza. Horretarako, zentzumen-hezkuntzari emango zaio lehentasunezko arreta. Gainera, haurrak bere buruaren irudi positiboa eta orekatua eraiki dezan eta gero eta autonomia pertsonal handiagoa izan dezan bideratuko da.

3.– Horrez gain, Haur Hezkuntzak beste hauek ere egin behar ditu:

a) Familiekin lankidetzan, haurren garapen osoa sustatu. Horretarako, haurra osoki prestatu eta gizarteratuko da, kontuan hartuta haurraren eskubideak, haren ongizate psikofisikoa eta haren gaitasun potentzial guztiak: afektiboak, zentzu-mugimenezkoak, kognitiboak, harremanetarakoak eta sozialak.

b) Desberdintasunak prebenitzeko eta orekatzeko hezkuntza sustatu, bereziki gizartean edo pertsonalki egoerarik ahulenean daudenei arreta emanez eta ekitatea bilatzen saiatuz.

c) Hezkuntza-jardueraren hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak sustatu eta bultzatu.

d) Familiei zerbitzua eman hiru urtetik beherako haurrak zainduz eta haiei arreta emanez, gurasoei familia- eta lan-bizitza bateratzeko aukera errazteko.

e) Bi mila biztanle baino gutxiagoko landa-eremuetako biztanleei kalitatezko hezkuntza-zerbitzua eskuratzeko aukera eman.

***5. artikulua.*** Haur Hezkuntzako gaitasunak.

1.– Honi esaten diogu gaitasuna: Haur Hezkuntzan ikasleak testuingurura egokituta bereganatzen duen jakintzen, trebetasunen, jarreren eta balioen konbinazio integratua. Haur Hezkuntzako gaitasunak hezkuntzako gaitasun orokorrak kontuan hartuta zehazten dira.

2.– Hezkuntzako gaitasun orokorrak berberak dira hezkuntza-etapa guztietan. Hona hemen zein diren:

1.– Arduraz bizitzen ikastea.

2.– Ikasten eta pentsatzen ikastea.

***Artículo 3.***– Organización.

La Educación Infantil tiene carácter voluntario, y tiene una duración de seis cursos, divididos en dos Ciclos: el primero desde los cero a los tres años, y el segundo desde los tres a los seis años de edad.

***Artículo 4.***– Finalidades.

1.– La finalidad de la Educación Infantil es el desarrollo integral y equilibrado de los ámbitos físico, intelectual, afectivo y social de los niños y niñas.

2.– En ambos ciclos se atenderá progresivamente al desarrollo afectivo, al movimiento y los hábitos de control corporal, a las manifestaciones de la comunicación y del lenguaje, las pautas elementales de convivencia y relación social, así como al descubrimiento de las características físicas y sociales del medio, para lo cual se atenderá de manera prioritaria la educación sensorial. Además se facilitará que niñas y niños construyan una imagen positiva y equilibrada de sí mismos y adquieran cada vez mayores niveles de autonomía personal.

3.– Además la Educación Infantil debe:

a) Promover, en colaboración con las familias, el desarrollo integral del niño y de la niña mediante su formación y socialización desde la perspectiva del respeto a sus derechos, su bienestar psicofísico y el desarrollo de todas sus potencialidades: afectivas, senso-motoras, cognitivas, relacionales y sociales.

b) Promover una educación preventiva y compensadora de las desigualdades procurando, de forma especial, la atención a los más desfavorecidos social o personalmente y la búsqueda de la equidad.

c) Favorecer e impulsar desde el inicio de la acción educativa las condiciones adecuadas para garantizar el bilingüismo en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

d) Prestar un servicio a las familias mediante el cuidado y atención a los niños y niñas menores de tres años para favorecer la conciliación entre la vida familiar y laboral de padres y madres.

e) Posibilitar el acceso a un servicio de carácter educativo de calidad a la población de las zonas rurales con menos de dos mil habitantes.

***Artículo 5.***– Competencias de la Educación Infantil.

1.– Se entiende por competencia la combinación integrada de conocimientos, destrezas y habilidades, aptitudes y valores adecuados al contexto, que adquiere el alumnado en la Educación Infantil. Las competencias de la Educación Infantil se definen teniendo en cuenta las competencias educativas generales.

2.– Las competencias educativas generales son comunes a todas las etapas educativas y son las siguientes:

1.– Aprender a vivir responsablemente.

2.– Aprender a aprender y a pensar.

3.– Komunikatzen ikastea.

4.– Elkarrekin bizitzen ikastea.

5.– Pertsona gisa garatzen ikastea.

6.– Egiten eta ekiten ikastea.

***6. artikulua.***– Oinarrizko gaitasunak.

1.– Oinarrizko Hezkuntzarako ezarritako oinarrizko gaitasunak kontuan izango dira Haur Hezkuntzako ikasleek zer gaitasun eskuratu behar dituzten zehazteko, ikuspegi integratzailea eta praktikoa aintzat hartuta.

2.– Dekretu honen bitartez ezarri den curriculumak, bai eta ikastetxeek egingo duten curriculumaren zehaztapenak ere, honetan lagundu behar du: Haur Hezkuntzako ikasleek, gerora, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretuan (2007ko urriaren 16koa) xedatutako oinarrizko gaitasunak garatzen, hain zuzen.

***7. artikulua.***– Helburuak.

Haur Hezkuntzak haurrengan zenbait gaitasun garatzen lagunduko du. Gaitasun horiek aukera eman behar diote haurrari:

a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.

b) Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko eta horiek aztertzeko, eta baita horiek ezagutzeko interesa izateko ere, inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte har dezan.

c) Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena gara ditzan.

d) Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzeko.

e) Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebazten treba dadin.

f) Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.

g) Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.

***8. artikulua.***– Curriculuma.

1.– Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honela ulertu behar da Haur Hezkuntzako curriculuma: etapa horretarako ezarritako helburuen, gaitasunen, edukien, ebaluazio-irizpideen eta orientabide metodologikoen multzoa.

2.– Euskal Autonomia Erkidegorako Haur Hezkuntzako curriculuma izango da Dekretu honen eranskinean jasotzen dena.

3.– Aprender a comunicarse.

4.– Aprender a vivir juntos.

5.– Aprender a desarrollarse como persona.

6.– Aprender a hacer y emprender.

***Artículo 6.***– Competencias básicas.

1.– Las competencias básicas establecidas para la Educación Básica se tendrán en cuenta para plantear la adquisición de competencias del alumnado de Educación Infantil desde un enfoque integrador y práctico.

2.– El currículo que se establece mediante este Decreto, así como la concreción del mismo que lleven a cabo los centros, contribuirá a que la educación del alumnado de la Educación Infantil se oriente hacia el futuro desarrollo de las competencias básicas previstas en el Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica.

***Artículo 7.***– Objetivos.

La Educación Infantil contribuirá a desarrollar en los niños y niñas las competencias que les permitan:

a) Conocer su propio cuerpo para tomar conciencia de sus posibilidades de acción y aprender a respetar las diferencias.

b) Observar y explorar su entorno familiar, natural y social así como mostrar interés por su conocimiento, para participar activamente, de forma gradual, en actividades sociales y culturales del entorno.

c) Adquirir una progresiva autonomía en sus actividades habituales para desarrollar iniciativa y confianza en sí mismo.

d) Desarrollar sus capacidades emocionales y afectivas para formarse una imagen positiva y ajustada de sí mismo.

e) Relacionarse con los demás y adquirir pautas elementales de convivencia y relación social, para ejercitarse en la resolución pacífica de conflictos.

f) Desarrollar habilidades comunicativas en diferentes lenguajes y formas de expresión.

g) Iniciarse en las habilidades lógico-matemáticas, la lecto-escritura y el movimiento, el gesto y el ritmo para comprender e interpretar el mundo que le rodea.

***Artículo 8.***– Currículo.

1.– A los efectos de lo dispuesto en este Decreto, se entiende por currículo de Educación Infantil el conjunto de objetivos, competencias, contenidos, criterios de evaluación y orientaciones metodológicas establecidos para esta Etapa.

2.– El currículo de Educación Infantil para la Comunidad Autónoma del País Vasco es el que se incluye en el anexo del presente Decreto.

3.– Erlijio bakoitzeko agintarien egitekoa izango da Erlijioa irakasgaiko konfesio-aukeretako curriculumak zehaztea.

***9. artikulua.***– Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.

1.– Dekretu honen ondorioetarako, ikastetxeak egindako hezkuntza-aukera eta hark ezarritako jardunbide-ildo nagusiak jasotzen dituen proposamen-agiri osoa hartzen da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektutzat, eta hezkuntza-komunitateak ikastetxean egingo duen hezkuntzako esku-hartzea koherentziaz zuzentzeko erreferentziatzat erabiliko da.

2.– Honako hauek jasoko ditu Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak: jardueraren balioak, helburuak eta lehentasunak; bizikidetza-plana; ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak; ebaluazio-prozesuko alderdi orokorrak; tutoretzako ekintza-plana eta aniztasunaren trataerarako neurriak; eta ikastetxeak erabakitako bestelako alderdiak. Hori guztia finkatzeko, euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriei eta premiei ere. Halaber, aintzat hartu behar da hezkuntza-helburuak lortzeko eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko bidea erraztea izango dela agiri horrek finkatutako neurrien helburua.

3.– Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio, eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikastetxearen titularrari, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Agiri hori argitaratu egin behar da.

4.– Halaber, ikastetxeek familiekiko, profesionalekiko eta ikasleekiko konpromisoak sustatuko dituzte, batzuek zein besteek zer eginkizun eta jarduera egiteko konpromisoa hartuko duten zehazteko eta hezkuntza-prozesua errazteko.

***10. artikulua***. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua.

1.– Dekretu honen xedeetarako, hau da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua: hizkuntzak irakasteari eta erabiltzeari loturiko alderdi guztien plangintza, ikastetxe bakoitzak bere esparruan gauzatzeko egiten duena. Hizkuntza-proiektuak hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du, eta zehaztu egingo du zernolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Hizkuntza-proiektuan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxearen beste agiri batzuetan ere: barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten oinarrietan, eta abarretan. Horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

2.– Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sartuko du.

3.– La determinación de los currículos de las opciones confesionales de la asignatura de Religión, será competencia de las correspondientes autoridades religiosas.

***Artículo 9.***– Proyecto Educativo de Centro.

1.– A los efectos del presente Decreto se entiende por Proyecto Educativo de Centro la propuesta integral que recoge la opción educativa y las grandes pautas orientadoras, que sirven de referencia para dirigir coherentemente el proceso de intervención de la comunidad educativa en dicho centro.

2.– El Proyecto Educativo del Centro incluirá los valores, objetivos y prioridades de actuación, el plan de convivencia, los criterios para la utilización de las lenguas en el proceso de aprendizaje, los aspectos generales del proceso de evaluación, el plan de acción tutorial y las medidas de atención a la diversidad, así como aquellos otros aspectos que el centro determine. Todo ello respondiendo y adecuándose al contexto socioeconómico y cultural tanto de la sociedad vasca, como del entorno del propio centro, a las características y necesidades del alumnado y considerando siempre que estas medidas deben tener por objeto fundamental facilitar la adquisición de las finalidades y competencias educativas generales de la Educación Infantil.

3.– Corresponde al Órgano Máximo de representación en los centros públicos, o al titular de los centros privados concertados la aprobación del Proyecto Educativo del Centro, que en todo caso deberá hacerse público.

4.– Los centros promoverán, asimismo, compromisos con las familias, con los profesionales y con el propio alumnado en los que se especifiquen las funciones y actividades que unos y otros se comprometen a desarrollar para facilitar el proceso educativo.

***Artículo 10.***– Proyecto Lingüístico de Centro.

1.– A los efectos del presente Decreto se entiende por Proyecto Lingüístico de Centro la planificación de todos aquellos aspectos relacionados con la enseñanza y el uso de las lenguas que cada centro educativo elabora para llevarlo a cabo en su propio ámbito. El Proyecto Lingüístico desarrollará los criterios para la enseñanza y utilización de las lenguas en el proceso de aprendizaje recogidos en el Proyecto Educativo, y determinará el tratamiento de las lenguas en el Proyecto Curricular. Las decisiones recogidas en él tendrán influencia directa también en otros documentos del centro: reglamento interno, planificación anual, principios que regulen las relaciones internas y externas, etc., a través de los cuales se canaliza la materialización de los principios acordados en el Proyecto Lingüístico.

2.– Cada centro educativo incluirá su propio Proyecto Lingüístico en el Proyecto Educativo de Centro.

***11. artikulua.***– Ikastetxearen Curriculum Proiektua.

1.– Dekretu honen xedeetarako, dekretu honexek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena da curriculum-proiektua.

2.– Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarrietara eta beharretara, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu beharko du Dekretu honen I. eranskinean bildutako curriculuma, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua hartu beharko du erreferentziatzat.

3.– Ikastetxearen Curriculum Proiektuak alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:

– Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan.

– Ebaluazio-irizpideak, eta gaitasunen gutxieneko garapen-maila, Haur Hezkuntza bukatzean.

– Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuko curriculum-alderdiak.

– Pedagogia-irizpideak eta irizpide didaktikoak, bai eta metodologia-aukerak eta curriculum-materialei buruzkoak ere, betiere, ikastetxeko irakasleen lanaren jarraikortasuna eta koherentzia bermatuta izanda.

– Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza-sistemara berandu sartu direnena.

– Tutoretza-ekintzarako eta hezkuntza-orientazioa garatzeko irizpideak.

4.– Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten dituzten ikastetxeetako curriculum-proiektuek zehaztu egin beharko dituzte hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarriak, haien arteko koherentzia zainduz. Ikastetxeek dagozkien curriculum-proiektuek ikastetxean ematen diren maila eta etapa guztietan koherentzia eta jarraitutasuna izan dezaten lagunduko dute, eta koordinazio-lana egingo dute maila-aldaketak direla-eta ikasleak jasotzen dituzten edo ematen dizkieten ikastetxeekin.

5.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak curriculuma garatzea erraztu eta irakasleen lana bideratuko duen materiala egin dadin bultzatuko du.

***12. artikulua.***– Ikastetxearen Curriculum Proiektua gauzatzea.

1.– Ikastetxeek Curriculum Proiektua egin eta hezkuntza-administraziori aurkeztuko diote. Hark, Hezkuntzako Ikuskaritzak egindako txostena ikusita, aplikagarri diren xedapen arauemaileekin bat datorren erabakiko du eta, beharrezkoak badira, curriculum-proiektuaren bideragarritasunari buruzko oharrak egingo ditu.

***Artículo 11.***– Proyecto Curricular de centro.

1.– A los efectos del presente Decreto se entiende por Proyecto Curricular la concreción para el Centro del currículo establecido en este Decreto.

2.– El Proyecto Curricular deberá adecuar el currículo incluido en el anexo de este Decreto al contexto socioeconómico y cultural del Centro, a las características y necesidades del alumnado, a las opciones lingüísticas y a los recursos de cada centro, tomando como referencia el Proyecto Educativo de Centro.

3.– El Proyecto Curricular de Centro contendrá, al menos, las siguientes determinaciones:

– Las competencias, objetivos y contenidos de enseñanza adecuados a las necesidades de los alumnos y alumnas en todos los aspectos docentes.

– La concreción de los criterios de evaluación y los niveles mínimos de desarrollo de las competencias al finalizar la Educación Infantil.

– Los aspectos curriculares de su propio Proyecto Lingüístico.

– La determinación de los criterios pedagógicos y didácticos y las opciones metodológicas y sobre materiales curriculares que aseguren la continuidad y coherencia de la tarea de los docentes del Centro.

– Criterios para el tratamiento integral del alumnado con necesidad específica de apoyo educativo, tanto el alumnado de necesidades educativas especiales, como el de altas capacidades individuales y el de incorporación tardía al sistema educativo.

– Criterios para la acción tutorial y el desarrollo de la orientación educativa.

4.– En los centros que impartan varias etapas, el proyecto curricular contemplará las especificidades de cada una manteniendo la coherencia entre ellas. Los centros favorecerán la coherencia y la continuidad de los respectivos Proyectos Curriculares de todos los niveles y etapas impartidos en el mismo, así como la coordinación con aquellos otros centros de los que reciben o a los que promocionan sus alumnos y alumnas al cambiar de nivel.

5.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación fomentará la elaboración de materiales que faciliten el desarrollo del currículo y orienten el trabajo del profesorado.

***Artículo 12.***– Elaboración del Proyecto Curricular de centro.

1.– Los centros elaborarán el Proyecto Curricular que será presentado ante la Administración Educativa para que ésta, previo informe de la Inspección de Educación, decida sobre su conformidad con las disposiciones normativas aplicables y haga, en su caso, las observaciones pertinentes sobre su viabilidad.

2.– Ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan, Irakasleen Klaustroak egin beharko du curriculum-proiektua. Klaustroak berak izango du curriculum-proiektua onartzeko ardura, baina, hura onartu aurretik, Eskola Kontseiluaren iritzia jaso beharko da ikastetxe pribatu itunduetan, eta Ordezkaritza Organo Gorenarena, ikastetxe publikoetan. Curriculum-proiektuan xedatutakoak urteko planaren bidez gauzatuko dira ikasturtean zehar, eta, zehazki, irakaskuntza-jardueretako programaren bidez eta prestakuntza-jardueretako, eskolaz kanpoko jardueretako eta jarduera osagarrietako programaren bidez.

3.– Finantziazio publikorik jasotzen ez duten ikastetxe pribatuetan, curriculum-proiektua nork egin eta onartu behar duen jakiteko, eskumenen barne-banaketari erreparatu beharko zaio.

***13. artikulua.***– Elebitasuna eta eleaniztasuna.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoaren esparruan, hezkuntza-sistema elebiduna sendotzeko helburua izango duten neurri egokiak hartuko ditu, EAEko hizkuntza ofizialetan komunikazio-gaitasuna lortze aldera. Horretarako, ikastetxeek euskara eta gaztelania sartuko dituzte Haur Hezkuntzan, ikasleak bi hizkuntzetan ahozko eta idatzizko ulermen- eta adierazpen-gaitasunak eskuratzen has daitezen. Helburua da, bi hizkuntzak harreman- eta erabilera-hizkuntza gisa erabiltzea eremu guztietan, direla pertsonalak, sozialak edo akademikoak.

2.– Aurreko atalean adierazitako helburuak lortzeko, Dekretu honetan ezarritako curriculum-planteamenduak bere ezaugarrietara moldatu eta egokituko ditu ikastetxe bakoitzak. Halaber, aintzat hartuko dute bere hizkuntza-proiektua, eta hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta irakasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko. Euskara izango da komunikazio-hizkuntza nagusia eskola-eremuan.

3.– Elebitasuna oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortzeko xedea erdiesteko, ikastetxeek atzerriko hizkuntzak ikas eta erabil daitezen indartzeko neurriak ezarriko dituzte Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, eta bermatu egingo dute bete egiten direla bi hizkuntza ofizialetarako xedatutako gaitasun-mailak.

***14. artikulua.***– Ebaluazioa eta mailaz igotzea.

1.– Ebaluazioa orokorra, jarraitua eta prestakuntzazkoa izango da. Behaketa zuzena eta sistematikoa izango da ebaluazio-prozesuko teknika nagusia.

2.– Haur Hezkuntzako irakasleek irakaskuntza-prozesua, beren hezkuntza-jardutea eta haurrek gaitasunak eskuratu dituzten ala ez ebaluatuko dute, maila horretako helburuekin eta ezagutzarekin bat.

2.– En los Centros públicos y concertados el Proyecto Curricular deberá ser elaborado por el Claustro de Profesores. Su aprobación corresponde al propio Claustro, oídos el Consejo Escolar de los centros privados concertados y el Órgano Máximo de Representación en el caso de centros públicos. La realización anual de las determinaciones contenidas en el Proyecto Curricular se concretará, dentro del plan anual, en el programa de actividades docentes y en el programa de actividades de formación, extraescolares y complementarias.

3.–.En los centros privados no sostenidos con fondos públicos la elaboración y aprobación de los proyectos curriculares será realizada según su distribución interna de competencias.

***Artículo 13.***– Bilingüismo y plurilingüismo.

1.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en el contexto del Marco de Referencia Europeo para las lenguas, adoptará las medidas oportunas tendentes a la consolidación de un sistema educativo bilingüe, para conseguir la competencia comunicativa en las lenguas oficiales de la CAPV. A tal fin los centros incorporarán el euskera y el castellano en la Educación Infantil para conseguir una capacitación del alumnado que les inicie en las destrezas de comprensión y expresión, oral y escrita, en las dos lenguas, de tal manera que ambas puedan utilizarse como lenguas de relación y uso en todo tipo de ámbitos personales, sociales o académicos.

2.– Para el logro de los objetivos señalados en el apartado anterior, cada centro concretará y adaptará a sus circunstancias los planteamientos curriculares establecidos en el presente Decreto, teniendo en cuenta su proyecto lingüístico y considerando el tratamiento vehicular de las distintas lenguas como medio idóneo para conjugar en cada caso el objetivo del bilingüismo con el de la transmisión de los contenidos curriculares propios de cada ámbito. El euskera será la principal lengua vehicular en el ámbito escolar.

3.– Para avanzar hacia el objetivo de conseguir, desde el bilingüismo, alumnos y alumnas plurilingües, los centros implantarán medidas de refuerzo del aprendizaje y utilización de lenguas extranjeras a partir del segundo ciclo de la Educación Infantil, garantizando los niveles de competencia previstos para las dos lenguas oficiales.

***Artículo 14.***– Evaluación y Promoción.

1.– La evaluación será global, continua y formativa. La observación directa y sistemática constituirá la técnica principal del proceso de evaluación.

2.– El personal educativo de la Educación Infantil evaluará el proceso de enseñanza, su propia práctica educativa y el logro de las competencias por parte de las niñas y niños, de acuerdo con los objetivos y los conocimientos adquiridos en dicho nivel.

3.– Familiek seme-alaben irakas- eta ikas-prozesuari buruzko informazioa jasoko dute, gutxienez hiru hilean behin.

4.– Lehen Hezkuntzara automatikoki igaroko dira ikasleak. Hezkuntza-premia bereziak dituztenak bakarrik egon ahalko dira beste urtebete Haur Hezkuntzan.

***15. artikulua.***– Esparruak.

1.– Haur Hezkuntzako hezkuntza-edukiak honako esperientzia-eremu hauen arabera antolatuko dira:

a) Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala.

b) Ingurunearen ezagutza.

c) Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.

2.– Eremu bakoitzean proposatzen diren edukiak haurrentzat interesa eta esanahia duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira.

***16. artikulua.***– Ordutegia.

1.– Haur-eskolek, zero eta hiru urte arteko tartean, zerbitzu zabala eman beharko dute, gurasoei familia-bizitza eta lan-bizitza batera ditzaten errazte aldera. Hala ere, oro har, haurrek ezingo dute eskolan egunean zortzi orduz baino gehiagoz egon.

2.– Etapa guztian, eskolako ordutegia ikusmolde globala izanda antolatuko da eta haurrei hainbat mota eta erritmotako jarduerak eta atsedena txandakatzeko aukera emango dieten jarduerak sartuko dira.

3.– Haurrak pixkanaka-pixkanaka sartuko dira eskolara lehenengo aldian: egokitze-aldia izango da. Hauxe da egokitzeko aldiaren xedea: familia-esparruaren eta eskolaren artean jarraitutasuna izan dadin laguntzea, eta haurrei eskolara pixkanaka egokitzeko aukera ematea. Aldi hori antolatzean, kontuan izango da haur bakoitzaren hasierako egoera, bai eta eskolatu aurretik izan dituzten esperientziak ere.

***17. artikulua.***– Tutoretza.

1.– Tutoretza da ikasle talde jakin bateko hezkuntza-ekintza oro dinamizatzeko, osatzeko eta koordinatzeko elementua, eta ekintza horietan esku hartzen dutenak barnean hartzen ditu.

2.– Tutoretza-ekintza funtsezkoa da haurrek beren hezkuntza-prozesua modu pertsonalizatuan gara dezaten lortzeko, bakoitzaren banakako gaitasunen arabera.

3.– Tutoretza-ekintza haurren talde berean esku hartzen dutenei dagokie eta etapa osoan zehar egiten da. Talde berean zenbait maisuk eta maistrak, edota hezitzaileek eta bestelako profesional batzuek esku hartzen badute, haien jarduera ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuan xedatzen duenaren bitartez koordinatuko da.

3.– Las familias recibirán información sobre el proceso de enseñanza y aprendizaje de sus hijas e hijos, al menos una vez al trimestre.

4.– La promoción a la Educación Primaria será automática. Únicamente quienes presenten necesidades educativas especiales podrán permanecer un año más en la Educación Infantil.

***Artículo 15.***– Ámbitos.

1.– Los contenidos educativos de la Educación Infantil se organizarán de acuerdo con los siguientes ámbitos de experiencia:

a) Conocimiento de sí mismo y autonomía personal.

b) Conocimiento del entorno.

c) Lenguajes: comunicación y representación.

2.– Los contenidos que se propongan desde cada ámbito se alcanzarán por medio de actividades globalizadas, que tengan interés y significado para cada niño y niña.

***Artículo 16.***– Horario.

1.– Las escuelas infantiles, en el periodo de los cero hasta los 3 años, deberán prestar un servicio amplio con el fin de facilitar la conciliación de la vida familiar y la vida laboral. No obstante y con carácter general los niños y niñas no podrán permanecer en el centro más de ocho horas cada día.

2.– En toda la etapa el horario escolar se organizará desde un enfoque globalizador e incluirá actividades que permitan alternar diferentes tipos y ritmos de actividad y descanso de los niños y niñas.

3.– La incorporación por primera vez al centro de los niños y niñas será progresiva, llevándose a cabo un periodo de adaptación. La finalidad de éste es la de favorecer la continuidad entre el ámbito familiar y el escolar y posibilitar una progresiva adaptación de los niños y niñas a la escuela. En la organización de este periodo se tendrá en cuenta la situación inicial de cada niño y niña, así como sus experiencias previas en la escolarización.

***Artículo 17.***– Tutoría.

1.– La tutoría es el elemento dinamizador, integrador y coordinador de toda la acción educativa en un grupo concreto de alumnos, y vincula a quienes intervienen en él.

2.– La acción tutorial es esencial para lograr que las niñas y niños desarrollen su proceso educativo de forma personalizada de acuerdo con las capacidades individuales de cada uno.

3.– La acción tutorial corresponde a quienes intervienen en el mismo grupo de niños y niñas y se desarrolla a lo largo de toda la etapa. Cuando en un mismo grupo intervengan maestros y maestras, educadores y otros profesionales, su actuación será coordinada mediante lo que disponga cada centro en su Proyecto Educativo.

4.– Tutoreak harreman estua izango du familiarekin, ikasleen ikaskuntza-prozesuan familien ezinbesteko lankidetza ziurtatze aldera. Harreman horrek gurasoek seme-alabek ikasteko eta gizartean eta hezkuntzan txertatzeko prozesuan egindako aurrerapenaren berri izateko duten eskubidea bermatuko du, bai eta hezkuntza-prozesuan ikastetxearekin lankidetzan aritzeko orientabide egokiak jasotzeko duten eskubidea ere.

5.– Tutoretza-ekintzak berekin dakar hezkuntza-ekintza osoaren plangintza orokorra, sistematikoa eta jarraitua egitea. Plangintza hori, etapako bigarren zikloan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sarturiko tutoretza-ekintzako plana izango da. Irakasteko eta ikasteko prozesuen jarraitutasun hori bermatzeko, lehenengo zikloaren eta bigarren zikloaren arteko koordinazioa indartzeko prozedurak ezarriko dituzte ikastetxeek, bai eta etapa horretako azken mailaren eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloaren arteko koordinazioa indartzeko ere.

6.– Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa ematen duten ikastetxeek koordinazio-mekanismoak ezarriko dituzte irakasle-taldeen artean.

***18. artikulua.***– Aniztasunaren trataera.

1.– Aniztasunaren trataera oinarrizko hezkuntza-irizpidea da. Hezkuntzako esku-hartzea jaso behar du, horrela bermatzen baita bai haur guztien garapena, bai eta arreta pertsonalizatua ere, haurraren heltze-prozesuaren, interesen, erritmoen eta ikasteko estiloa kontuan hartuta.

2.– Ikasle guztien aniztasunaren trataera kontuan izateko, malguak izango dira etapako helburu orokorrak betetzeko neurriak, eta horrela, etorkizunean oinarrizko gaitasunak garatzen lagunduko zaie.

3.– Ikastetxeek errefortzu-mekanismo egokiak jarri beharko dituzte abian, antolakuntzakoak nahiz curriculumekoak, ikaskuntzan zailtasunak aurkitzen direnean. Hona hemen neurri horietako batzuk: laguntza ematea talde arruntean, taldekatze malguak egitea, curriculum-egokitzapenak eta berariazko errefortzuak eremuren batean.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko prozedurak arautuko ditu ikasleen ikasteko zailtasunei aurre hartu, hauteman eta haietan esku hartzeko, eta ikastetxeei abian jar ditzaten errazteko jarduerak gauzatuko ditu.

***19. artikulua.***– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen trataera.

Ikastetxeek egiten dituzten curriculum-proiektuek nahiko malguak izan beharko dute, haur bakoitzaren ezaugarrietara, ikasteko erritmoetara eta berezitasunetara egokitutako banakako zehaztapenak egiteko aukera izan dadin. Helburua da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen trataerarako berezkoak diren bi printzipio bete ahal izatea: hezkuntzazko inklusioa eta indibidualizazioa.

4.– El tutor o la tutora mantendrán una relación fluida con la familia a fin de asegurar la necesaria colaboración de ésta en el proceso de aprendizaje de los alumnos y alumnas. Esta relación garantizará los derechos de padres y madres a estar informados sobre el progreso del aprendizaje e integración socioeducativa de sus hijos e hijas y a recibir las orientaciones convenientes para colaborar con la escuela en el proceso educativo.

5.– La acción tutorial implica la planificación de un proceso global, sistemático y continuo de toda la acción educativa que se concretará en el segundo ciclo de la etapa en un plan de acción tutorial integrado en el proyecto educativo del centro. Con la intención de garantizar esta continuidad de los procesos de enseñanza y aprendizaje, los centros establecerán los procedimientos oportunos para potenciar la coordinación del primer ciclo con el segundo, así como el último curso de esta etapa con el primer ciclo de Educación Primaria.

6.– Los centros que impartan la Educación Infantil y el primer ciclo de la Educación Primaria establecerán mecanismos de coordinación entre los distintos equipos docentes.

***Artículo 18.***– Atención a la diversidad.

1.– La atención a la diversidad es un principio educativo básico que debe contemplar la intervención educativa entendiendo que, de este modo, se garantiza tanto el desarrollo de todos los alumnos y alumnas, como la atención personalizada en función de sus procesos madurativos, intereses, ritmos y estilos de aprendizaje.

2.– La atención a la diversidad del conjunto del alumnado se tendrá en cuenta mediante medidas flexibles, encaminadas a alcanzar los objetivos generales de la etapa y de esta forma contribuir al futuro desarrollo de las competencias básicas.

3.– Los centros deberán poner en práctica los adecuados mecanismos de refuerzo, tanto organizativos como curriculares, en cuanto se detecten dificultades de aprendizaje. Entre estas medidas podrán considerarse el apoyo en el grupo ordinario, los agrupamientos flexibles, las adaptaciones del currículo y los refuerzos específicos en algún ámbito.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación regulará los procedimientos oportunos para prevenir, detectar e intervenir ante las dificultades de aprendizaje del alumnado y llevará a cabo actuaciones para facilitar a los centros su puesta en práctica.

***Artículo 19.***– Atención a alumnos y alumnas con necesidades educativas especiales.

Los proyectos curriculares que elaboren los centros han de ser suficientemente flexibles para permitir concreciones individuales ajustadas a las características, los ritmos de aprendizaje y las singularidades de cada niño o niña, con el objeto de que se puedan cumplir los principios de inclusión educativa e individualización propios de la atención al alumnado con necesidades educativas especiales.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatuko du ikastetxeek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntza eta hezkuntza-arretarako neurriak abian jar ditzaten.

***20. artikulua.***– Ikastetxeen autonomia pedagogikoa.

1.– Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako curriculuma garatuko dute programazio didaktikoen bitartez. Programazio horietan kontuan izango dira hezkuntza-maila honetako ikasleen beharrak eta ezaugarriak. Programazioetan, halaber, haurren jolasteko, lan egiteko eta atseden hartzeko erritmoak errespetatuko dira.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du eta maisu eta maistren, hezitzaileen eta profesionalen talde-lana bultzatuko du.

3.– Ikastetxeetako hezitzaileek autonomia izango dute hezkuntza-maila horretan erabili behar den material didaktikoa aukeratzeko, betiere Dekretu honen eranskinean ezarritako curriculumera egokitzen badira.

4.– Ikasleen gaitasunak, prestakuntza eta aukerak ahalik eta gehien garatzeko, ikastetxeek curriculuma zabaltzeko ahalmena dute. Nolanahi ere, I. eranskinean ezarritako curriculuma beti bete behar dute.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Erlijio-irakaskuntza.

1.– Ikasturtearen hasieran, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eskolatuta dauden ikasleen gurasoek edo, kasuan kasu, tutoreek, seme-alabek erlijio-irakaskuntza jasotzea nahi duten ala ez adieraziko dute.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zainduko du erlijio-irakaskuntzak ikasleen eta haien familien eskubideak errespeta ditzan, irakaskuntza hori jasotzeagatik edo ez jasotzeagatik diskriminaziorik egon ez dadin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

1.– Indargabetu egin da 236/1992 Dekretua, 1992ko abuztuaren 11koa, Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena.

2.– Indargabetuta geratuko dira maila bereko edo txikiagoko gainerako arauak ere, Dekretu honetan xedatutakoaren aurka badoaz.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación promoverá que los centros educativos lleven a cabo medidas de apoyo y de atención educativa, dirigidas al alumnado con necesidades educativas especiales.

***Artículo 20.***– Autonomía pedagógica de los centros.

1.– Los centros docentes desarrollarán el currículo establecido por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación mediante las programaciones didácticas, en las que se tendrán en cuenta las necesidades y las características de los alumnos y de las alumnas de este nivel educativo. En estas programaciones se respetarán los ritmos de juego, trabajo y descanso de los niños y niñas.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación promoverá la autonomía de los centros y estimulará el trabajo en equipo de los maestros y maestras, educadores y otros profesionales.

3.– El personal educativo de los centros docentes tendrá autonomía para elegir los materiales didácticos que hayan de usarse en este nivel educativo, siempre que se adapten al currículo establecido en el anexo de este Decreto.

4.– Para poder desarrollar al máximo las competencias, formación y oportunidades de todos los alumnos y alumnas, los centros docentes podrán ampliar el currículo, respetando, en todo caso, el currículo establecido en el anexo.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Enseñanzas de Religión.

1.– Al inicio del curso, los padres y madres, o, en su caso, tutores o tutoras de los alumnos y alumnas escolarizados en el segundo ciclo de la Educación Infantil, manifestarán su voluntad de que sus hijos reciban o no enseñanzas de religión.

2.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación velará por que las enseñanzas de religión respeten los derechos del alumnado y sus familias para que no exista discriminación por el hecho de recibir o no dichas enseñanzas.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

1.– Queda derogado el Decreto 236/1992, de 11 de agosto, por el que se establecen las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Infantil.

2.– Quedan derogadas las demás normas de igual o inferior rango en cuanto se opongan a lo establecido en este Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Ezarpena.

2008-2009 ikasturtean, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (2006ko maiatzaren 3koa) zehaztutako Haur Hezkuntzako antolamendu berriko bi zikloak ezarriko dira, izaera orokorrez, eta ez dira irakatsiko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zehaztutako Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloei dagozkienak.

***Bigarrena.***– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urtarrilaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Implantación.

En el curso académico 2008-2009 se implantarán, con carácter general, los dos ciclos de la nueva ordenación de la Educación Infantil definida por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y se dejarán de impartir los correspondientes al primer y segundo ciclo de la Educación Infantil definida por Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo.

***Segunda.***– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de enero de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## URTARRILAREN 20KO 12/2009 DEKRETUAREN ERANSKINA

## HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA

### SARRERA

Haur Hezkuntzaren xede nagusia haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea da, familiekin lankidetza estuan. Etapa honetan jartzen dira banakoaren garapen pertsonalerako eta sozialerako oinarriak, eta zenbait ikaskuntza osatzen dira, herritarrentzat oinarrizkotzat jotzen diren gaitasunak lortzeko oinarrian dauden irakaskuntza batzuk, alegia.

Haur Hezkuntzako haurren adinean garrantzi berezia dute honako helburu hauek dituzten ikaskuntzek: haur bakoitzak bere buruaren benetako irudia eraikitzea; nork bere buruaren ezagutza, aintzatespena eta kontrola lortzea; haur bakoitzak zer aukera dituen jakitea, eta unean-unean eskura dituen baliabideak erabiltzen jakitea. Izan ere, horrela norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna garatzeko oinarriak finkatzen dituzte.

Haur Hezkuntzako etapan garrantzi berezia du adierazpen moduetan trebatzen hasteak, eta, bereziki, ahozko hizkuntzak. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudenez, Haur Hezkuntzan garrantzi handia hartzen dute fase honetako berezko hizkuntza-ikasketek.

Bi hizkuntzak ikasteko eta garatzeko prozesuetan, eragina izaten dute, bai haurren hizkuntza-jatorriak, bai familia-hizkuntzaren ezagutza-mailak eta garapenak,

## ANEXO AL DECRETO 12/2009, DE 20 DE ENERO

## CURRÍCULO DE LA EDUCACIÓN INFANTIL

### INTRODUCCIÓN

La Educación Infantil tiene como principal finalidad contribuir al desarrollo físico, afectivo, social e intelectual de niñas y niños en estrecha cooperación con las familias. En esta etapa se sientan las bases para el desarrollo personal y social del individuo y se integran aprendizajes que están en la base del logro de las competencias que se consideran básicas para la ciudadanía.

En estas edades tienen especial relevancia los aprendizajes orientados a la construcción de una imagen ajustada de sí mismo, al conocimiento, valoración y control que niños y niñas van adquiriendo de su propia persona, de sus posibilidades y de la capacidad de utilizar con cierta autonomía los recursos disponibles en cada momento sentando las bases del desarrollo de la competencia relacionada con la autonomía e iniciativa personal.

En la etapa de Educación Infantil cobra especial importancia la iniciación en múltiples formas de expresión, especialmente el lenguaje oral. Dada la existencia de dos lenguas oficiales en nuestra Comunidad Autónoma, los aprendizajes lingüísticos propios de esta fase adquieren una gran relevancia durante la Educación Infantil.

Los procesos de adquisición y desarrollo de ambas lenguas se ven afectados por las distintas procedencias lingüísticas de los niños y niñas, por el grado de adqui-

eta baita murgilduta dauden testuinguru soziolinguistikoak ere. Hizkuntzak inguruko pertsonekin izaten diren harremanetan ikasten eta garatzen dira, esanahien negoziazio-prozesuen bitartez. Prozesuak antzekoak izaten dira hizkuntza guztietan eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna finkatzen laguntzen dute.

Azpimarratu behar da hizkuntzak (gorputz-hizkuntza, artistikoa, musika-hizkuntza, ikus-entzunezkoa eta teknologikoa) oso garrantzitsuak direla ikasleen garapen osorako, aukera ematen baitute nork bere nortasuna finkatzeko eta sentimenduak eta emozioak adierazteko, eta zenbait gaitasunen oinarria dira: giza eta arte-kulturarako gaitasunarena, eta informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunarena, hain zuzen.

Haurrak ingurumenarekin eta parekoekin harremanetan aritzeak aukera ematen du haiek ingurune hurbilean integra daitezen eta pentsamendu-prozesuak gara ditzaten; eta gai egingo ditu erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, errealitatea eta bizileku duten mundua ezagutzeko eta baliabide kognitiboak gero eta modu landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna eta matematikarako gaitasuna garatuz joango dira.

Etapa honetan, haurren ingurua zabaldu eta dibertsifikatu egiten da: familia-ingurunea ez ezik, eskola-ingurunea ere badute. Gizarte-harreman berriak egiteko aukera gehiago dituzte, eta horrek lagundu egingo die elkarlanean aritzen, ingurukoekin harremanak izaten eta elkarrekin bizitzen ikasten. Horrela, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatuko dute.

ESPERIENTZIA EREMUAK

NORBERAREN EZAGUERA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

SARRERA

«Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala» esperientzia-eremuak zera biltzen du: haurrak, hezkuntzako esku-hartzearen laguntzarekin eta pixkanaka, bere buruari buruz barneratzen duen ezagutza guztia. Ezagutza horrek lagundu egingo dio haurrari bere nortasuna sendotzeko prozesuan, eta erabateko mendetasuna izatetik nahikoa autonomia izatera eramango duen bideko ibilbidean.

Haur-eskolaren eremuari loturiko norbanakoaren eraikitze-prozesuan, hasteko, nahitaezkoa da lotura afektiboa ezartzea haurraren eta eskola-inguruneko helduren baten artean; atxikimenduko irudi bat izatea, alegia. Lotura horrek segurtasuna emango dio haurrari, eta ingurunea miatzen eta inguruneko elementuen artean harremanak ezartzen lagunduko dio. Interakzio horiek lagundu egingo diote haurrari bere garapen kognitiboa eta mugimenarena garatzen, bere aukerak eta mugak

sición y desarrollo de la lengua familiar, así como por el contexto sociolingüístico en el que están inmersos. Las lenguas se adquieren y desarrollan a través de su uso en interacción con las personas del entorno, mediante procesos de negociación de significados que son similares en todas las lenguas y contribuyen al afianzamiento de la competencia en comunicación lingüística.

Conviene subrayar la importancia que para el desarrollo integral del alumnado tienen los diferentes lenguajes: el corporal, el artístico, el musical, el audiovisual y tecnológico... que posibilitan el afianzamiento de la propia identidad y la expresión de sentimientos y emociones sentando las bases de la competencia en cultura humanística y artística y de la competencia en el tratamiento de la información y competencia digital.

La interacción de niños y niñas con el medio y con sus iguales posibilitará la integración en el entorno inmediato y la evolución de los procesos de pensamiento; los hará capaces de ir tomando decisiones, de resolver problemas, de conocer la realidad y el mundo en el que viven y de utilizar de manera cada vez más elaborada y compleja los recursos cognitivos. De esta manera irán desarrollando la competencia de aprender a aprender, la competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud así como la competencia matemática.

En esta etapa el entorno de las niñas y los niños se amplía y diversifica pasando del medio familiar al escolar. Se incrementan sus posibilidades de establecer nuevas relaciones sociales lo que favorecerá que aprendan a colaborar, a relacionarse con los demás y a vivir juntos, desarrollando así la competencia social y ciudadana.

ÁMBITOS DE EXPERIENCIA

CONOCIMIENTO DE SÍ MISMO Y AUTONOMÍA PERSONAL

INTRODUCCIÓN

El ámbito de experiencia «Conocimiento de sí mismo y autonomía personal» engloba todo el conocimiento que los niños y niñas adquieren con ayuda de la intervención educativa y de forma progresiva sobre sí mismos. Este conocimiento les acompañará en el proceso de consolidación de su identidad y en el recorrido del camino que les llevará desde la más absoluta dependencia hasta una aceptable autonomía.

En el proceso de construcción personal vinculado al ámbito de la escuela infantil es imprescindible comenzar por establecer un vínculo afectivo entre el niño o niña y algún adulto del contexto escolar como figura de apego. Dicho vínculo dará seguridad a la criatura y contribuirá a que explore el entorno y establezca relaciones entre sus elementos. Estas interacciones favorecerán su desarrollo cognitivo y motor, le ayudarán a constatar sus posibilidades y limitaciones, a diferenciarse de los

egiaztatzen, ingurukoengandik bereizten, eta erraztu egingo diote helduekiko independentzia-prozesua hasten.

Nortasun pertsonala eraikitzea haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen interakzioen emaitza da, haurraren esperientzia multzoaren ondorioa, alegia. Interakzioek nork bere buruaren benetako irudia lortzea, autonomia, norberaren gaitasunez jabetzea, eta segurtasuna eta autoestimua sustatu behar dituzte. Prozesu horretan haurrengan sortzen diren sentimenduek lagundu egingo dute nork bere buruaren kontzeptu egokitua gauzatzen. Horrek, gero, aukera emango die bere gaitasunen arabera hautemateko eta jarduteko, garapen osorantz eta harmonikorantz aurrera egin dezaten.

Afektibitatea garatzea bereziki garrantzitsua da etapa honetan; irakaspenen oinarria da eta haurraren nortasuna eratzen du. Horretarako, funtsezkoa da haurrak, hasiera-hasieratik, emozioak eta sentimenduak pixkanaka onartu, adierazi eta kontrola ditzan bultzatzea.

Kontuan izan behar da haurrak bere buruaren inguruan egiten duen irudia, hein handi batean, inguruan dituztenek erakusten dioten irudiaren barneratzea dela, bai eta haiengan jartzen duen konfiantzarena ere. Halaber, helduek haurraren ekimenak jasotzeko erabiltzen duten moduak erraztu edo oztopatu egingo du haren garapena.

Etapa honetako haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude. Haurrek ekintza, objektuak erabiltzea eta ingurukoekin harremanak izatea behar dute, eta hori jolastuz egiten dute. Jolasaren bitartez, haurrak bere ulertzeko moduak antolatzen ditu, bere gaitasunak probatzen ditu, bere esperientzia berregin eta ulergarriago egiten du, bere emozioak menderatzen saiatzen da eta bere burua ezagutzeko bidean aurrera egiten du.

Haur-eskolan oso garrantzitsua da bizi-kalitate hobea izaten lagunduko duten ohiturak eta balioak sustatzea. Nork bere burua zaintzen ikasteak, pixkanaka, jarduteko jarraibide egokiak hartzea eskatzen du, elikadurari, segurtasunari eta higieneari dagokienez. Ohiturak hezi daitezke, eta funtsezkoa da ildo horretan esku hartzea haurrak hezkuntza-komunitatearekin ezartzen dituen lehenengo harremanetatik. Bizitzan aukera osasungarriak hartzen lagunduko dion ezagutza eraiki behar da.

HELBURUAK

«Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala» eremuak, etapan, haurrak honako gaitasun hauek eskura ditzan izango du xede:

1.– Haurrak ingurukoengandik bestelakoa dela ikustea eta nork bere buruaren irudi benetakoa eta positiboa eratzea, autoestimuko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak gara ditzan.

otros y facilitarán el inicio del proceso de independencia con respecto al adulto.

La construcción de la identidad personal es consecuencia del conjunto de experiencias que niños y niñas tienen fruto de las interacciones con su medio físico, natural y, sobre todo, social. Estas interacciones deben promover una imagen ajustada de sí mismo, autonomía, conciencia de la propia competencia, seguridad y autoestima. Los sentimientos que a lo largo de este proceso se generan en los niños y niñas contribuirán a la elaboración de un autoconcepto ajustado, que les va a permitir percibir y actuar conforme a sus capacidades, para avanzar hacia un desarrollo pleno y armónico.

El desarrollo de la afectividad es especialmente relevante en esta etapa, es la base de los aprendizajes y conforma la personalidad infantil. Para ello, es fundamental potenciar, desde el primer momento, el reconocimiento, la expresión y el control progresivo de emociones y sentimientos.

Debe tenerse en cuenta que la imagen que niños y niñas construyen de sí mismos es, en gran parte, una interiorización de la que les muestran quienes les rodean y de la confianza que en ellos depositan. Así mismo, la forma en que las personas adultas recogen sus iniciativas facilitará u obstaculizará su desarrollo.

Todas las dimensiones del desarrollo infantil en esta etapa están vinculadas al juego. Las niñas y niños necesitan acción, manejar objetos, relacionarse con otros, y esto lo hacen jugando. A través del juego, los niños y niñas organizan sus percepciones, ponen a prueba sus capacidades, recrean su experiencia haciéndola más comprensible, experimentan el dominio de sus emociones y avanzan en el conocimiento de sí mismos.

En la Escuela Infantil es muy importante fomentar hábitos y valores que contribuyan a una mayor calidad de vida. Aprender a cuidarse supone ir adquiriendo progresivamente pautas de conducta adecuadas y saludables en cuanto a la alimentación, seguridad e higiene. Los hábitos son educables y es fundamental intervenir en este sentido desde los primeros contactos que el niño o niña establece con la comunidad educativa, construyendo los conocimientos que le ayudarán a tomar opciones saludables a lo largo de su vida.

OBJETIVOS

El ámbito «Conocimiento de sí mismo y autonomía personal» tendrá como finalidad el logro de las siguientes competencias en la etapa:

1.– Reconocerse como persona diferenciada de las demás y formarse una imagen ajustada y positiva de sí misma para desarrollar sentimientos de autoestima y autonomía personal.

2.– Gorputza kontrolatzen aurrera egitea, zentzumen-pertzepzioa garatzeko eta tonua, oreka eta mugimenduaren koordinazioa inguruko ezaugarrietara egokitzeko.

3.– Bere gorputza eta gorputzaren zenbait funtzio ezagutzea eta adieraztea, ekintzarako eta adierazpenerako dituen aukerak eta mugak aurki ditzan.

4.– Beharrak, sentimenduak, emozioak edo lehentasunak identifikatzea, horiek adierazteko, menderatzeko eta ingurukoei jakinarazteko gero eta gaitasun handiagoa izan dezan; eta besteenak identifikatzea eta errespetatzea, arian-arian.

5.– Ongizate emozionalari eta fisikoari loturiko ohiturak eta jarrerak barneratzen aurrera egitea, bere segurtasun pertsonala sendotzeko eta eguneroko egoerez gozatzeko.

6.– Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta lan errazak gero eta modu autonomoagoan egitea, nork bere buruarekiko konfiantza eta ekimen-gaitasuna areagotzeko.

7.– Estrategiak garatzea, afektu, jolas, elikadura, mugimendu, azterketa, higiene, osasun eta segurtasuneko oinarrizko beharrak gero eta modu autonomoagoan bete ditzan; eta izandako lorpenekin pozik dagoela adieraztea.

8.– Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko; eta mendetasun- edo nagusitasun-jarrerarik ez izatea.

9.– Eginkizun errazak gauzatzeko edo arazoak konpontzeko, norberaren ekintzaren plangintza egitea eta ekintza sekuentziatzea; frustrazio txikiak onartzea, aurkezten zaizkion zailtasunak gainditzera daraman jarrera adieraztea, eta besteengan beharrezko lankidetza bilatzea.

EDUKIAK

LEHENENGO ZIKLOA

1. BLOKEA:
NORTASUN PERTSONALA SORTZEA

– Norberaren gorputzaren eta besteen gorputzen zenbait ezaugarri aztertzea, gero eta hobeto ezagutzea eta haiek identifikatzea, oro har eta zatika.

– Gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentsazioak eta pertzepzioak gero eta hobeto identifikatzea.

– Norberaren gorputzarekin esperimentatzea eta hura gero eta hobeto menderatzea: mugimendua, negarra, irribarrea, oihuak, tonua, adierazkortasuna eta keinuak. Ahotsari erreparatzea, eta erabiltzea.

– Norberaren gorputzaren irudia eta nortasuna gero eta hobeto eraikitzea eta onartzea.

2.– Progresar en el control del cuerpo para desarrollar la percepción sensorial y ajustar el tono, el equilibrio y la coordinación del movimiento a las características del contexto.

3.– Conocer y representar su cuerpo y algunas de sus funciones para descubrir sus posibilidades y limitaciones de acción y de expresión.

4.– Identificar necesidades, sentimientos, emociones o preferencias para ser progresivamente capaces de expresarlos, denominarlos y comunicarlos a los demás, así como identificar y respetar, gradualmente, también los de los otros y otras.

5.– Progresar en la adquisición de hábitos y actitudes relacionados con el bienestar emocional y físico, para afianzar su seguridad personal y disfrutar de las situaciones cotidianas.

6.– Realizar, de manera cada vez más autónoma, actividades habituales y tareas sencillas para resolver problemas de la vida cotidiana, para aumentar el sentimiento de autoconfianza y la capacidad de iniciativa.

7.– Desarrollar estrategias para satisfacer de manera cada vez más autónoma sus necesidades básicas de afecto, juego, alimentación, movimiento, exploración, higiene, salud y seguridad, y manifestar satisfacción por los logros alcanzados.

8.– Desarrollar actitudes y hábitos de respeto, ayuda y colaboración para adecuar su comportamiento a las necesidades y requerimientos de los otros, así como evitar actitudes de sumisión o dominio.

9.– Tomar la iniciativa, planificar y secuenciar la propia acción para resolver tareas sencillas o problemas; aceptar las pequeñas frustraciones, manifestar una actitud tendente a superar las dificultades que se plantean, así como buscar en los otros la colaboración necesaria.

CONTENIDOS

PRIMER CICLO

BLOQUE 1:
EL DESPERTAR DE LA IDENTIDAD PERSONAL

– Exploración, progresivo reconocimiento e identificación de algunas de las características del propio cuerpo, tanto global como segmentariamente y de las de los demás.

– Utilización de los sentidos en la exploración del cuerpo y de la realidad exterior y progresiva identificación de las sensaciones y percepciones que se obtienen.

– Experimentación y progresivo dominio del propio cuerpo: movimiento, llanto, sonrisa, grito, tono, expresividad, gesto. Descubrimiento y utilización de la voz.

– Construcción progresiva y aceptación de su imagen corporal y de la propia identidad.

– Sentimenduak, emozioak, lehentasunak eta norberaren eta besteen interesak adieraztea, identifikatzea eta arautzen hastea. Enpatia-jarrerak izaten hastea.

– Hurbileko helduen eta beste haur batzuen afektuzko sentimenduak ezagutzea eta onartzea.

– Inguruko pertsonekin harreman afektibo egokiak bilatzea eta ezartzea.

– Segurtasun afektiboa bermatzen duten estrategiak barneratzea (erreferentziazko helduaren begirada bilatzea, harreman afektiboa bilatzea...).

– Gizarte-harremanetako oinarrizko arauak ohiko jokabidean integratzea.

– Jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan norberaren gorputzak dituen mugimen-aukerak eta -mugak aztertzea.

– Gorputza gero eta hobeto koordinatzea eta kontrolatzea gorputz osoaren mugimendua eskatzen duten jarduеretan.

– Tonua eta jarrera kontrolatzen eta, orobat, objektuaren, bestearen, ekintzaren, egoeraren eta espazioaren ezaugarrietara egokitzen hastea.

– Norberaren mugimen-aukeretan gero eta konfiantza handiagoa izatea. Ekimena izatea ekintzetan, eta jakin-mina trebetasun berriak ikasteko.

2. BLOKEA:
ONGIZATE PERTSONALA ETA EGUNEROKOTASUNA

– Ohiko eta eguneroko egoeretan oinarrizko beharrak adieraztea, haietaz jabetzea eta haiek arautzen hastea.

– Estimuluak jasotzeko (jarduerauneak) eta baztertzeko (atsedenuneak) gaitasuna garatzea.

– Norberaren erritmo biologikoak egunerokotasuneko sekuentzia sozializatuetara egokitzea, gutxika-gutxika.

– Jakitea eguneroko zein ekintza edo erritu datorren, denboran duten segidari erreparatuta.

– Norberaren jokabidea, ekimena eta autonomia pixkanaka arautzen hastea eguneroko egoeretan eta jolas-egoeretan.

– Helduen laguntzarekin, lankidetzan aritzea eta parte hartzeko interesa izatea eguneroko eginkizunak gauzatzen (higienea, arropa janztea eta eranztea, jostailuak biltzea, kontakizunak entzutea...).

– Jolas sinbolikoko jardueretan parte hartzea.

– Ongizate pertsonalari loturiko oinarrizko ohitura osasungarriak barneratzea.

– Norberaren gaitasunetan konfiantza izatea, laguntzarekin eginkizunak gauzatzeko eta eguneroko zailta-

– Manifestación, identificación e inicio de la regulación de sentimientos, emociones, preferencias e intereses propios y ajenos. Iniciación en actitudes de empatía.

– Reconocimiento y aceptación de los sentimientos de afecto de los adultos próximos y de otros niños y niñas.

– Búsqueda y establecimiento de relaciones afectivas adecuadas con las personas de su entorno.

– Adopción de estrategias que garanticen su propia seguridad afectiva (búsqueda de la mirada del adulto de referencia, demanda de contacto afectivo...).

– Incorporación de pautas elementales de interacción social a su comportamiento habitual.

– Exploración de las posibilidades y limitaciones motrices del propio cuerpo en situaciones lúdicas y de la vida cotidiana.

– Progresiva coordinación y control corporal en actividades que impliquen movimiento global.

– Iniciación al control y adaptación del tono y la postura a las características del objeto, del otro, de la acción, de la situación y del espacio.

– Progresiva confianza en las propias posibilidades motrices. Iniciativa en la acción y curiosidad por aprender nuevas habilidades.

BLOQUE 2:
BIENESTAR PERSONAL Y VIDA COTIDIANA

– Manifestación, conciencia e inicio de la regulación de las necesidades básicas en situaciones habituales y cotidianas.

– Desarrollo de la capacidad de excluir (momentos de descanso) y recibir estímulos (momentos de actividad).

– Adaptación progresiva de los ritmos biológicos propios a secuencias socializadas de la vida cotidiana.

– Anticipación de acciones y rituales cotidianos en relación con la sucesión temporal de los mismos.

– Inicio de la regulación de la propia conducta, iniciativa y autonomía progresiva en situaciones de la vida cotidiana y de juego.

– Colaboración e interés por participar, en compañía del adulto, en la realización de tareas de la vida cotidiana (higiene, vestirse y desvestirse, recoger juguetes, escuchar relatos...).

– Participación en actividades de juego simbólico.

– Adquisición de hábitos saludables elementales en relación con el bienestar personal.

– Confianza en las propias posibilidades para resolver con ayuda tareas y superar dificultades cotidianas.

sunak gainditzeko. Zenbait arrisku-egoerari antzematen eta horrelako egoerak saihesten hastea.

– Ondoezaz ohartzea eta ondoeza adieraztea, eta horrelako egoeretan, pixkanaka, helduen laguntza onartzea.

BIGARREN ZIKLOA

1. BLOKEA:
GORPUTZA ETA NORBERAREN IRUDIA

– Norberaren gorputza aztertzea eta ezagutzea. Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak identifikatzea, bai eta ingurukoekin alderatuz dituzten aldeak eta antzekotasunak ere.

– Norberaren ezaugarriak balioesten eta onartzen joatea, bai eta norberaren aukerak eta mugak ere. Norberaren gaitasunean eta aukeretan konfiantza izatea, eskuragarri dituen eginkizunak eta ekintzak gauzatzeko.

– Gorputzaren oinarrizko beharrak identifikatu, adierazi, arautu eta kontrolatzea. Behar horiek betetzeko norberaren gaitasunetan konfiantza izatea.

– Gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentsazioak eta pertzepzioak identifikatzea.

– Gorputz-eskema gero eta errealagoa eta osoagoa egin eta adieraztea.

– Norberaren gorputzari lotuta, espazio-erreferentziak ezartzea.

– Norberaren aldaketa fisikoei hautematea, eta denboraren joatearekin duten loturari.

– Norberaren eta ingurukoen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta adieraztea. Norberaren sentimenduak eta emozioak pixkanaka kontrolatzen ikastea.

– Ingurukoen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, aldeak errespetatzea eta jarrera diskriminatzailerik ez izatea.

2. BLOKEA:
JOLASA ETA MUGIMENDUA

– Jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan, norberaren gorputzak eta ingurukoenak dituzten mugimen-aukerak eta -mugak aztertzea eta aintzat hartzea.

– Oinarrizko mugimen-trebetasunak pixkanaka kontrolatzen ikastea (martxa, lasterketa, jauziak, jaurtiketak, oreka...). Trebetasun berriak ikasteko ekimena eta norberaren hobekuntzan aurrera egiteko nahia.

– Espazioaren, erritmoaren eta denboraren lehen nozioak eskuratzea errazten duten mugimenduak erabiltzea.

Iniciación en la detección y evitación de algunas situaciones de riesgo.

– Reconocimiento y expresión del sentimiento de malestar, y aceptación progresiva de la ayuda del adulto en dichas situaciones.

SEGUNDO CICLO

BLOQUE 1:
EL CUERPO Y LA PROPIA IMAGEN

– Exploración y reconocimiento del propio cuerpo. Identificación de sus características y cualidades así como de las diferencias y semejanzas con el de los demás.

– Valoración y aceptación progresiva de las características propias, así como de sus posibilidades y limitaciones. Confianza en la capacidad y posibilidades personales para realizar tareas y acciones que estén a su alcance.

– Identificación, expresión, regulación y control de las necesidades básicas del cuerpo. Confianza en las capacidades propias para su satisfacción.

– Utilización de los sentidos en la exploración del cuerpo y de la realidad exterior e identificación de las sensaciones y percepciones que se obtienen.

– Elaboración y representación de un esquema corporal cada vez más ajustado y completo.

– Establecimiento de las referencias espaciales en relación con el propio cuerpo.

– Percepción de los cambios físicos propios y su relación con el paso del tiempo.

– Identificación y expresión de sentimientos, emociones, vivencias, preferencias e intereses propios y de los demás. Control progresivo de los propios sentimientos y emociones.

– Aceptación de la identidad y de las características de los demás, respetando las diferencias y evitando actitudes discriminatorias.

BLOQUE 2:
JUEGO Y MOVIMIENTO

– Exploración y valoración de las posibilidades y limitaciones motrices del propio cuerpo y del de los demás en situaciones lúdicas y de la vida cotidiana.

– Progresivo control de las habilidades motrices básicas (marcha, carrera, saltos lanzamientos, equilibrio...). Iniciativa para aprender habilidades nuevas y deseo de superación personal.

– Utilización de movimientos que faciliten el establecimiento de las primeras nociones espaciales, rítmicas y temporales.

– Manipulazio-trebetasunak koordinatzea eta kontrolatzea, eta usu baliatzen diren tresnak modu eraginkorrean erabiltzea.

– Jolasaren bitartez ingurunea aztertzea: mugimen- eta zentzumen-jolasak, jolas sinbolikoak eta arauak dituztenak. Jolasa gozatzeko eta ingurukoekin harremana izateko bidetzat hartzea.

– Jolasen arauak ulertzea eta onartzea. Arauak beharrezkoak direla ohartzea eta arautzen parte hartzea.

– Tonua eta jarrera besteen, objektuaren, ekintzaren eta egoeraren ezaugarrietara egokitzea.

– Konfiantza izatea norberak ekintzarako dituen aukeretan; eta parte-hartzea eta ahalegina egitea, nola jolasetan hala ariketa fisikoa egitean.

3. BLOKEA:
JARDUERA ETA EGUNEROKOTASUNA

– Ekimena eta gero eta autonomia handiagoa izatea eguneroko bizitzako berezko jarduerak gauzatzen.

– Jarduera horiek gauzatzean, norberaren eta besteen aukerak eta mugak onartzea.

– Beste hezkuntza-behar batzuk dituzten ikaskideak errespetatzea eta haiei laguntza ematea.

– Ekintzaren plangintza sekuentziatua egitea eginkizunak gauzatzean, eta haien ondorioak egiaztatzea.

– Eginkizun bererako irtenbide bat baino gehiago bilatzeko interesa, eta ikaskideen proposamenak aintzat hartzea.

– Antolakuntzari, konstantziari, arretari, ekimenari eta ahaleginari loturiko ohiturak eta jarrerak garatzen hastea.

– Jarrera positiboa izatea helduekin eta parekoekin, afektuzko eta enpatiazko harremanak ezartzeko.

– Taldeko eginkizunetan, elkarri eragiten eta lankidetzan aritzeko aldeko jarrera izatea, eta ingurukoen zailtasunen aurrean sentikortasuna erakustea.

– Egunerokotasuna arautzen duten taldeko arauak eztabaidatzea, haien inguruko gogoeta egitea, aintzat hartzea eta errespetatzea.

– Ondo egindako lanari garrantzia ematea, akatsak aitortzea eta ekintzak hobetzeko zuzenketak onartzea.

4. BLOKEA:
NORBERAREN ZAINTZA ETA OSASUNA

– Osasunaren alde egiten duten eta norberaren eta ingurukoen ongizatea eragiten duten ekintzak eta egoerak identifikatzea eta aintzat hartzea.

– Ohitura osasungarriak gero eta modu autonomoagoan gauzatzea: gorputzaren higienea, elikadura eta

– Coordinación y control de las habilidades manipulativas y utilización eficaz de utensilios de uso habitual.

– Exploración del entorno a través del juego: juegos motores, sensoriales, simbólicos y de reglas. Valoración del juego como medio de disfrute y relación con los demás.

– Comprensión y aceptación de las reglas de juego. Valoración de su necesidad y participación en su regulación.

– Adaptación del tono y la postura a las características del objeto, del otro, de la acción y de la situación.

– Confianza en las propias posibilidades de acción, participación y esfuerzo personal en los juegos y en el ejercicio físico.

BLOQUE 3:
LA ACTIVIDAD Y LA VIDA COTIDIANA

– Iniciativa y progresiva autonomía en la realización de actividades propias de la vida cotidiana.

– Aceptación de las posibilidades y limitaciones propias y ajenas, en la realización de las mismas.

– Respeto y ayuda a los compañeros y compañeras con necesidades educativas diversas.

– Planificación secuenciada de la acción en la realización de tareas y constatación de sus efectos.

– Interés por descubrir soluciones diversas para una misma tarea y valoración de las diferentes propuestas de sus compañeros-as.

– Desarrollo inicial de hábitos y actitudes de organización, constancia, atención, iniciativa y esfuerzo.

– Actitud positiva para establecer relaciones de afecto y empatía con personas adultas y con los iguales.

– Disposición favorable para la interacción y colaboración en la realización de tareas en grupo manifestando sensibilidad hacia las dificultades de los demás.

– Discusión, reflexión, valoración y respeto por las normas colectivas que regulan la vida cotidiana.

– Valoración del trabajo bien hecho, reconocimiento de los errores y aceptación de las correcciones para mejorar acciones.

BLOQUE 4:
EL CUIDADO PERSONAL Y LA SALUD

– Identificación y valoración de acciones y situaciones que favorecen la salud y generan bienestar propio y de los demás.

– Práctica cada vez más autónoma de hábitos saludables: higiene corporal, alimentación y descanso. Utiliza-

atsedena. Jardute horri loturiko eremuak eta objektuak behar bezala erabiltzea.

– Laguntza behar duten egoeretan laguntza eskatzea eta onartzea. Besteen laguntzeko jarrerari garrantzia ematea.

– Eguneroko jarduerak egiten diren eremuak garbi eta txukun edukitzeko, elkarlanean aritzea eta horretan laguntzea.

– Eguneroko jarduerak -otorduak, atsedena, higienea eta lekualdaketak- arautzeko ezarritako jokabide-arauak onartzea eta balioestea. Arau horiek betetzeko gero eta ekimen handiagoa izatea.

– Osasunean zuzeneko eragina duten arrisku-faktoreei behar duten garrantzia ematea eta ohiko egoeretan prebentzio- eta segurtasun-jokabideak izatea.

– Gaixotasun-egoeretan eta istripu txikiak gertatzen direnean lasai egon eta laguntzea.

– Osasunerako, norberaren eta besteen ongizaterako egokiak eta desegokiak diren jokabide eta jardute sozialak identifikatzea, hitzez adieraztea eta modu kritikoan balioestea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Haur Hezkuntzako etaparako ebaluazio-irizpideak, oro har, behatu eta neur daitezkeen jokabideei buruzko adierazleetan zehazten dira.

1.– Norberaren gorputz-eskemaren gero eta ezagutza doituagoa erakustea, eta norberaren sentsazioez eta pertzepzioez jabetzea.

– Ea gero eta gaitasun handiagoa duen bere gorputzeko eta besteeneko atalak ezagutzeko, izendatzeko eta kokatzeko.

– Ea pertsonen arteko aldeak eta antzekotasunak identifikatzen eta deskribatzen dituen, gorputzaren zenbait ezaugarri eta nolakotasun oinarritzat hartuta.

– Ea giza irudia adierazten dakien, haren zenbait ezaugarri fisiko oinarritzat hartuta.

– Ea identifikatzen dituen ezaugarri fisiko bakoitzari loturiko zentzumenak eta sentsazioak.

– Ea ezagutzen eta jakinarazten dituen minaren, gosearen, loguraren eta tenperaturaren sentsazioak.

– Ea loturarik ezartzen duen zentzumenen eta haien xedearen artean.

2.– Mugimen- eta manipulazio-trebetasunak hobetu dituela erakustea, bere gaitasunetan konfiantza izanda.

– Ea bere gorputza gero eta hobeto kontrolatzen duen, bai mugimenduan (lekualdaketak, martxa, lasterketa, jauziak...) bai eta atsedenean ere (oreka, jarreraren kontrola...).

ción adecuada de los espacios y objetos ligados a dicha práctica.

– Petición y aceptación de ayuda en situaciones que la requieran. Valoración de la actitud de ayuda de otras personas.

– Colaboración y contribución al mantenimiento de la limpieza y orden de los espacios en que se desenvuelven las actividades cotidianas.

– Aceptación y valoración de las normas de comportamiento establecidas para la regulación de actividades cotidianas: comidas, descanso, higiene y desplazamientos. Progresiva iniciativa en su cumplimiento.

– Valoración ajustada de los factores de riesgo que afecten directamente a la salud y adopción de comportamientos de prevención y seguridad en situaciones habituales.

– Actitud de tranquilidad y colaboración en situaciones de enfermedad y de pequeños accidentes.

– Identificación, verbalización, y valoración crítica de comportamientos y prácticas sociales adecuados e inadecuados para la salud, el bienestar propio y el de los demás.

CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Los criterios de evaluación para la etapa de Educación Infantil se concretan en indicadores que hacen referencia a conductas observables y medibles.

1.– Mostrar un conocimiento progresivamente ajustado de su esquema corporal tomando conciencia de las propias sensaciones y percepciones.

– Es progresivamente capaz de reconocer, nombrar y ubicar las distintas partes de su cuerpo y las de los demás.

– Identifica y describe diferencias y semejanzas entre las personas en base a algunas características y cualidades del cuerpo.

– Representa la figura humana en base a algunas de sus características físicas.

– Identifica los sentidos y las sensaciones asociadas a cada uno de ellos.

– Reconoce las sensaciones de dolor, hambre, sueño, temperatura y las comunica.

– Establece relaciones entre los sentidos y su finalidad.

2.– Dar muestras de mejora en sus destrezas motoras y habilidades manipulativas manifestando confianza en sus posibilidades.

– Controla progresivamente el propio cuerpo tanto en movimiento (desplazamientos, marcha, carrera, saltos....), como en reposo (equilibrio, control postural...).

– Ea beste trebetasun batzuk ere eskuratzen ari den, pixkanaka-pixkanaka.

– Ea ekintza berriak hasteko ekimenik baduen, eta lortutiko aurrerapenekin gozatzen duen.

– Eguneroko jarduerak gauzatzean, ea tresnak eta lanabesak koordinazio eta kontrol egokiarekin erabiltzen eta maneiatzen dituen.

3.– Jolasetan parte hartzea, sentimenduak eta emozioak gero eta hobeto erregulatuz.

– Ea jolasetan modu aktiboan parte hartzen duen.

– Ea jolas erraz batzuk zuzentzen dituzten arauak onartzen eta betetzen dituen.

– Ea laguntzazko eta elkarlanerako jarrerarik baduen.

– Ea norberaren sentimenduak eta emozioak identifikatzen dituen eta gero eta hobeto bereizten dituen.

– Ea laguntzarik eskatzen duen beharrak edo nahiak betetzeko, eta ea hitzik gabeko baliabideak erabiltzen dituen, behar duenean, ingurukoek uler diezaioten.

– Era bateko edo besteko hizkuntzak erabiliz, ea adierazten dituen sentsazioak, emozioak eta bizipenak.

– Ea gero eta hobeto lotzen dituen gogo-aldarteak eta horien arrazoiak eta ondorioak.

– Ea sentibera den ingurukoen gogo-aldarte, interes eta lehentasunekiko.

– Ea gero eta estrategia egokiagoak erabiltzen dituen frustrazio-egoerak bideratzeko.

– Ea gero eta hobeto saihesten dituen mendekotasun- edota nagusitasun-jarrerak.

4.– Aurrera egitea oinarrizko beharrak modu autonomoan betetzen, eta norberaren buruaren ongizatearekiko eta zaintzarekiko interesa eta ekimena erakustea.

– Ea oinarrizko beharrak (besteak beste, gosea, egarria edo nekea) zein diren badakien eta helduei adierazten dizkien.

– Ea gero eta autonomia handiagoa duen osasunari eta ongizateari loturiko ohituretan: elikadura, higienea, atsedena...

– Ea parte hartzen duen ingurunea garbi eta gustuko edukitzeko jardueretan.

– Ea arrisku-egoerak zein diren badakien eta saihesten dituen.

5.– Gero eta autonomia handiagoz, egunerokotasunari loturiko arazo errazak ebaztea.

– Eguneroko jardueretan, ea eremuak, materiala eta tresnak behar bezala eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.

– Helduen laguntzarekin, ea jarduera errazen sekuentzien plangintza egiten duen, agertzen zaizkion arazo txikiei erantzuna emateko.

– Ea laguntzen duen taldeko jardueretan.

– Avanza progresivamente en la adquisición de nuevas destrezas.

– Muestra iniciativa para emprender nuevas acciones y disfruta con sus progresos.

– Utiliza y maneja instrumentos y herramientas con adecuada coordinación y control en la realización de actividades de la vida cotidiana.

3.– Participar en juegos, regulando progresivamente la expresión de sentimientos y emociones.

– Participa activamente en distintos tipos de juegos.

– Acepta y respeta las normas que rigen algunos juegos sencillos.

– Muestra actitudes de ayuda y colaboración.

– Identifica y progresa en la diferenciación de los propios sentimientos y emociones.

– Pide ayuda para satisfacer necesidades o deseos y utiliza recursos no verbales para hacerse entender cuando es necesario.

– Expresa, valiéndose de diferentes lenguajes, sensaciones, emociones y vivencias.

– Establece progresivamente relaciones entre los estados de animo, sus motivos y consecuencias.

– Se muestra sensible hacia los estados de ánimo, intereses y preferencias de los demás.

– Utiliza progresivamente estrategias adecuadas para canalizar situaciones de frustración.

– Evita progresivamente actitudes de sumisión y dominio.

4.– Avanzar en la satisfacción autónoma de las necesidades básicas, mostrando interés e iniciativa por el bienestar y cuidado personal.

– Reconoce y manifiesta a los adultos sus necesidades básicas como hambre, sed o cansancio.

– Muestra autonomía progresiva en la adquisición de los hábitos de salud y bienestar: alimentación, higiene, descanso...

– Participa en actividades que favorecen un entorno limpio y agradable.

– Reconoce y evita situaciones de peligro.

5.– Resolver, con progresiva autonomía, problemas sencillos relacionados con la vida cotidiana.

– Utiliza adecuadamente y con progresiva autonomía los espacios, materiales e instrumentos en las actividades de la vida cotidiana.

– Planifica, con ayuda del adulto, secuencias de actividades sencillas para dar respuesta a pequeños problemas que se le presentan.

– Colabora en actividades de grupo.

INGURUNEAREN EZAGUERA

SARRERA

Esperientzia-eremu hau ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruen gaineko ezaguera gero eta doituagoa eraikitzeari dagokio. Ezaguera horrek berekin dakar errealitatearen adierazpen zehatza egitea, ingurunearen zati garen sentimendua garatzea eta ingurunea osatzen duten elementuak errespetatzea, eta haiekiko interesa izatea eta behar bezala balioestea.

Haurraren inguruan dauden eta segurtasun afektiboa ematen dioten helduekiko lotura positiboak ezartzeak lagundu egingo dio haurrari, hark errealitateak nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko jakin-mina erakuts dezan, eta hartara jo dezan. Ingurune fisikoarekiko harremanetan, ingurune fisikoa eratzen duten elementuak aztertzen, behatzen, ikuskatzen, ikertzen eta identifikatzen ditu; haien artean loturak ezartzen ditu; antzekotasunak eta aldeak aurkitzen ditu; bere ekintzek inguruneko elementuetan dituzten eraginak ordenatzen, sailkatzen eta kuantifikatzen ditu eta aurrea hartzen die; eta manipulaziotik adierazpenera eta berbalizaziora eboluzionatzen du.

Eremu honi dagozkion edukiek honako gai hauek hartzen dituzte, nagusiki: hurbileko ingurune naturalak eta sozialak, haietako elementu fisikoak eta haien arteko harremanak, bai eta haietan gertatzen diren antolaketak, eginkizunak eta gizarte-harremanak ere. Halaber, haurrei gizarteko komunikabideen bidez edota bidaien eta antzekoen bitartez iristen zaizkien urrutiko inguruneak ere eremu honi dagozkio; urrutiko ingurune horiek haurren arreta erakartzen baitute, eta horiek ezagutzeko interesa sorrarazten die.

Proposamen honen oinarrian haur-eskolen honako kontzeptu hau dago: ingurunera irekia, haurrek eskolaz kanpo bizi dituzten esperientzien ezaguera hartzen duena, inguruan gertatzen den guztiarekiko sentikorra, kanpoko errealitatea eskolan sartzeko aukera ematen duena eta eskolari inguruan duen errealitate sozialean eta naturalean bere ekarpenekin eragiteko aukera ematen diona.

Ingurune naturala eta ingurune hori eratzen duten izakiak eta elementuak dira haurren jakin-min eta interes nagusia. Naturako elementuei loturik dituzten bizipenek eta haien gaineko gogoeta gidatuak hainbat fenomeno, eta haien agerraldiak eta ondorioak aztertzera eramango dituzte haurrak, helduen laguntza eta babesarekin. Halaber, izaki bizidunak, haien artean ezartzen diren harremanak, haien ezaugarriak eta haien zenbait funtzio ezagutzera eramango dituzte, pixkanaka.

Ingurune soziokultural hurbilena estimulu-iturri da adin horretan; estimulu horiek haurren arreta berenganatzen dute, eta interes nagusi bihurtzen dira laster. Etapan zehar, haurrek familiako eta eskolako kide direla

CONOCIMIENTO DEL ENTORNO

INTRODUCCIÓN

Este ámbito de experiencia hace referencia a la construcción de un conocimiento cada vez más ajustado sobre los diferentes contextos que conforman el medio natural, físico y social. Este conocimiento implica la elaboración de una representación concreta de la realidad, el desarrollo de sentimientos de pertenencia al medio y de actitudes de respeto, interés y valoración hacia los elementos que lo integran.

El establecimiento de vínculos positivos con los adultos que le rodean y que le proporcionan seguridad afectiva favorecerá que el niño o niña actúe y muestre curiosidad por conocer y comprender cómo funciona la realidad. En la interacción con el medio físico indaga, observa, explora, investiga e identifica los elementos que lo conforman, establece relaciones entre ellos, detecta semejanzas y diferencias, ordena, clasifica, cuantifica, anticipa los efectos de sus acciones sobre ellos, evolucionando desde la manipulación a la representación y verbalización.

Los contenidos correspondientes a este ámbito abarcan principalmente los entornos naturales y sociales inmediatos, sus elementos físicos y las relaciones entre sí, así como las organizaciones, roles y relaciones sociales que tienen lugar en ellos. Así mismo, también abarcan los entornos lejanos que llegan a las niñas y niños a través de los medios de comunicación social, viajes, etc., y que atraen su atención e interés por conocerlos.

En la base de esta propuesta se encuentra un concepto de escuela infantil abierta al medio, receptiva al bagaje de experiencias que viven los niños y niñas fuera de la escuela, sensible a todo lo que sucede en su entorno, que permite que la realidad externa entre en la escuela y que ésta incida con sus aportaciones en la realidad social y natural en la que está inmersa.

El medio natural y los seres y elementos que lo integran son objeto preferente de la curiosidad e interés infantil. Las vivencias que tienen en relación con los elementos de la naturaleza y la reflexión guiada sobre ellas, les llevarán, con el apoyo y acompañamiento del adulto, a la observación de algunos fenómenos, sus manifestaciones y consecuencias, así como a acercarse gradualmente al conocimiento de los seres vivos, de las relaciones que se establecen entre ellos, de sus características y de algunas de sus funciones.

El entorno socio-cultural más próximo constituye a estas edades una fuente de estímulos que captan su atención y se convierten en centro de su interés desde muy pronto. A lo largo de la etapa, los niños y las niñas

ikusiko dute; azken batean, hazten ari diren ingurune sozialeko kide direla ohartuko dira.

Eskola-bizitzak berekin dakar gero eta esperientzia zabalagoak izatea. Esperientzia horiek pertsonak eta pertsonen arteko harremanak ezagutzeko aukera emango die, loturak sortuko dituzte eta zenbait jarrera garatuko dituzte, hala nola konfiantzazkoak, enpatiazkoak eta atxikimenduzkoak. Jarrera horiek haurren sozializazioaren oinarria izango dira. Gizarte-harremanak lankidetzakoak izaten dira maiz, baina gatazkatsuak ere bai, alditan. Hala ere, esku-hartze egokiaren laguntzarekin, beti egingo dute gizarte-ikaskuntzaren, pertsonen arteko garapenaren eta bizikidetzaren alde.

Kultura-aniztasunak haurrak gizarte-ohituretara eta -usadioetara hurbiltzea gomendatzen du, bai eta beren inguruko kultura-eremuetara hurbiltzea ere. Eta, hori guztia, gizartean dauden askotariko modu eta adierazpen kulturalak ezagutzeko aukera emango dien ikuspegi ireki eta integratzaileetik. Horrela, haiekiko errespetua izango dute eta estimatu egingo dituzte.

HELBURUAK

«Ingurunearen ezaguera» eremuak, etapan, haurrek honako gaitasun hauek eskura ditzaten izango du xede:

1.– Ingurune fisikoa, naturala eta soziala modu aktiboan aztertzea eta esploratzea, eta ingurune horiek ezagutzeko interesa erakustea, ingurune horietako kide diren sentipena garatzeko eta haietara nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz moldatzeko.

2.– Portaera sozialeko oinarrizko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean.

3.– Beren esperientziaren hurbileko hainbat gizarte-talde, haien zenbait ezaugarri, ekoizpen kultural, balio eta bizimodu identifikatzea eta haiek ezagutzera hurbiltzea, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarrerak sortze aldera.

4.– Ingurune fisikoa ikertzea eta bertako zenbait elementuren ezaugarriak identifikatzea, haietan jarduteko eta haietan eraldaketak sortzeko gaitasuna garatze aldera.

5.– Elementuen eta bildumen tasunak identifikatzea eta taldekatze-, sailkatze-, ordenatze- eta kuantifikatze-harremanak ezartzea, pentsamendu logiko-matematikoa garatzeko eta horren adierazpideak ikasten hasteko.

6.– Naturako animaliak, landareak, elementuak eta fenomenoak aztertzea eta ezagutzea, eta haiei buruzko saiakuntzak egitea eta hitz egitea, ingurune naturalaren gaineko interesa erakusteko eta jakin-mina eta errespetua garatzeko.

Ingurune naturaleko oinarrizko osagaiak eta haien zenbait harreman, aldaketa eta eraldaketa ezagutzea eta

van descubriendo su pertenencia a la familia y a la escuela, en definitiva al medio social en el que crecen.

La vida escolar conlleva el establecimiento de experiencias cada vez más amplias que les acercarán al conocimiento de las personas y de las relaciones interpersonales, generando vínculos y desarrollando actitudes como confianza, empatía y apego que constituyen la base de su socialización. Las relaciones sociales son a veces cooperativas y, a veces, conflictivas, pero con una intervención adecuada, siempre favorecerán el aprendizaje social, el desarrollo interpersonal y la convivencia.

La diversidad cultural aconseja aproximar a niños y niñas a los usos y costumbres sociales, así como a los espacios culturales de su entorno, desde una perspectiva abierta e integradora que les permita conocer diversos modos y manifestaciones culturales presentes en la sociedad, y generar así actitudes de respeto y aprecio hacia ellas.

OBJETIVOS.

El ámbito «Conocimiento del entorno» tendrá como finalidad el logro de las siguientes competencias en la etapa:

